



FERNANDO PRADO AYUSO, CMF, JAUNAK  
JAINKOARI ETA APOSTOLU AULKI SANTUARI ESKER,  
DONOSTIAKO GOTZAINA NAIZEN HONEK

## ELIZBARRUTIKO PASTORAL KONTSEILUAREN ESTATUTUAK ALDATZEKO DEKRETUA

Elizbarrutiko pastoral kontseiluaren (EPK) estatutuak egiteko Elizaren Zuzenbideak Gotzainari ematen dion ahalmenaren indarrez, eta estatutu horietan 1. eta 25. artikuluetan agertzen denaren arabera, eta elizbarrutiko kuriaren eta bere gobernu-organoen gaur egungo eraketa, eta etorkizunean eratu daitekeena, Elizbarrutiko pastoral kontseiluan isladatzeko, 7. artikulua aldatzeari ekiten diogu, EPK ko kontseilarietara dagokiena, honela geldituz:

“Art. 7. Gotzain jaunak presiditzen du EPK, eta honako hauek izango dira EPKren kideak kontseilari gisa: jatorrizkoak, hautetsiak eta Gotzain jaunak libreki izendatuak (kan. 512. 1).

### 1. Jatorrizko kideak

- Bikario nagusia
- Gotzain-bikarioak, egonez gero
- Bikario judiziala
- Gotzain ordezkariak edo Gotzainak izendaturiko arduradunak, Elizbarrutiko pastoral ekintzaren arlo orokorretarako (ebanjelizazioa, liturgia, sozio-karitatea, kleroa...)
- Biziera sagaraturako Gotzain ordezkaria
- Kantziler eta Idazkari orokorra
- Seminarioko Errektorea
- Kontseilu presbiteralaren idazkaria
- Elizbarrutiko ekonomoa
- Gobernu kontseiluko kide ez klerigoak, egonez gero, Gotzain jaunak kontseilua eratzeko duen moduaren arabera

### 2. Kide hautetsiak

Elizbarruti mailan:

- Elizbarrutiko ordezkariak edo zerbitzu bakoitzeko ordezkari bat
- Confer Gipuzkoa-ko bi ordezkari
- Elizbarrutian ofizialki kokatutako Institutu sekularren artean aukeratutako ordezkari bat
- Kristau Eskolaren presidentea
- Elizbarrutian ofizialki kokatutako Mugimendu Apostolikoaren artean aukeratutako bi ordezkari
- Pio XII.a Institutuko zuzendaria
- Arantzazu eta Loiolako Santutegietako arduradunak

Artziprestalde mailan:

- Artzipresteak
- Artziprestalde bakoitzeko lau kide laiko

### 3. Libreki izendatutako kideak

Gotzain jaunak zuzenean izendatu ahal izango ditu kide batzuk, gehienez ere bost arterainoko kopuruan”.

Elizbarrutiko pastoral kontseiluaren estatutuetao gainerako artikulua dauden moduan geratzen dira.

Gorde bedi Dekretu honen eta Estatutuen ale bat, dagokien legeztapenarekin, gure Elizbarrutiko Agiritegi nagusian eta bidali bedi berau Elizbarrutiko pastoral kontseiluaren agiritegira.

Argitara bedi dekretua Aldizkari Nagusian.

Donostian emana, 2023ko urriaren 5ean

✠ **Fernando Prado Ayuso, CMF**  
*Donostiako Gotzaina*

Gotzain jaunaren aginduz

**Luzia Alberro Goikoetxea**  
*Kantziler eta Idazkari orokorra*